

ERAIKINEN PARTAIDETZA-PROZESUA

Bilera-mota: herritarrekin 2. lan-saioa

Data: 2020/11/16

Ordutegia: 17:00-19:00

Lekua: Musika eskola

Parte-hartzaileak	Gai-zerrenda
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Guztira 19 herritar: <ul style="list-style-type: none"> - 11 emakume eta 8 gizon - 4 udal ordezkari (2 gizon eta 2 emakume) ✓ Udaletik: Iñaki Arregi (arkitekto-teknikoa) Josune Artola (eragile soziokultura) eta Mikel Arrizabalaga (idazkaria) ✓ Elhuyar Aholkularitzatik: Nerea Zubia eta Idurre Zugazagasti 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ongi-etorria eta aurkezpena 2. Udaletxeko eraberritzeko aukera desberdinen aurkezpena 3. Hiru udal-eraikinen erabilera eta egokitzapenen gaineko lanketa 4. Itxiera



1. Ongi-etorria eta aurkezpena

Gorka Muruak, alkateak, egin du ongi-etorria eta aurkezpen orokorra.

Ondoren, Elhuyarreko kideek saioaren planteamendua eta helburua aurkeztu dute: lehenengo gogoeta-saioan jasotako beharretatik abiatuz eta udaletxearen eraberritzeko aukera desberdinak aintzat hartuta hiru udal-eraikinetarako erabilera eta egokitzapenak adostea.

2. Udaletxea eraberritzeko aukera desberdinen aurkezpena

Iñaki Arregik, Irurako Udaleko arkitekto-teknikoak, udaletxearen gaur egungo egoera zein den aurkeztu du eta eraberritzeko beharra premiazkoa dela azpimarratu ditu: Hemen zergatiak:

- Udal-eraikinak ez ditu irisgarritasun baldintzak betetzen. Igogailurik ez du, ate eta pasilloak estuak dira, komunak ez dira irisgarriak...
- Inguratzaile termikoa jarri beharra dago.
- Teilatua berritu beharra dago, itoginak baititu.
- Beheko solairuko lurrak pipiak janda dago, beraz, tratamendua eta ordezkatzeari eskatzen du.
- Argiteriako hainbat instalazio elektriko udaletxean kokatzen dira egun, eta hauek kanpora atera behar dira.

Egoera hau izanik, arkitekto-talde batekin hurrengo lau aukerak landu dira:

Igogailua eraikin barruan (eskaileraren zuloan) jartzearen aukera zuzenean baztertu egin da, honen instalakuntzak eta eskailerak zabaltzeak gainerako azalera erabilgarria asko murrizten baitute.

1.AUKERA = Oinarrizko egokitzapenak egin (inguratzaile termikoa jarri, teilatua konpondu, ate zabalerak egokitu...) eta igogailua udaletxean atzeko fatxada kanpoan jartzea.

2.AUKERA = Oinarrizko egokitzapenak egin (inguratzaile termikoa jarri, teilatua konpondu, ate zabalerak egokitu...) eta udaletxeari eranskin berri bat egin atzeko fatxadan.

3.AUKERA = Oinarrizko egokitzapenak egin (inguratzaile termikoa jarri, teilatua konpondu, ate zabalerak egokitu...) eta atzeko eranskinaz gain, hirugarren pisu bat egin.

4.AUKERA = hirugarren aukeraren berdina litzateke, baina material desberdin eta garestiagoekin.

Gaur egungo egoera oinarri hartuta, azalera erabilgarrian zer nolako aldaketa izango litzatekeen partekatu da, eraberritzearen kostuarekin batera.

Informazioa eskuragarri <https://www.irura.eus/eu/-/proyecto-de-renovacion-del-ayuntamiento>

Azalpenen ondoren, zalantzak argitu eta galderak egiteko tarte zabaldu da.

3. Hiru udal-eraikinen erabilera eta egokitzapenaren gaineko lanketa

Lehendabizi, aurreko astean Jarraipen Batzordea bildu zela partekatu da eta bertan, irailean sinatutako akordio-orrian jasotakoari jarraiki, lehen gogoeta-saioan, udal-teknikariekin egindako lan-saioan eta herri-postontzian jasotako behar/proposamenen lehen galbahe bat burutu zela adierazi da.

Hauek izan ziren galbahea burutzeko kontuan hartutako irizpideak:

1. Udaletxearen eraberritzea lehentasuna da.
2. Ekonomikoki bideragarriak diren proposamenak izan behar dira.
3. Teknikoki bideragarriak diren proposamenak izan behar dira.
4. Proposamenak udalaren eskumenekoak izan behar dira.
5. Ez dira dagoeneko udalak aurreikusitako proposamenak.
6. Ezin dira kudeaketari edo funtzionamenduari dagozkion proposamenak izan.


Hori horrela, jarraian talde txikietan lan egiteari ekin zaio. Taldeen egitekoa udaletxerako aurkeztu diren aukeren artean eztabaidatzea eta, aldi berean, beste bi espazioetan zein erabilera lehenetsiko diren zehaztea izan da.


Lanketarako, halaber, hurrengo oharra aipatu dira:


- Udaletxearen eraberritzerako 4 aukera aurkeztu dira.
- 20 proposameneko zerrenda dago.
- Kontuan hartu beharreko irizpideak ondorengoak dira:
 - Udaletxearen eraberritzea lehentasuna da.
 - Proposamenen onuradun kopurua.
 - Egoera zaugarrian dauden pertsona eta taldeen beharrei erantzuten ote dien.
 - Ekonomikoki bideragarria izatea.
 - Herritarren egunerokoa erraztea.
 - Elkarbizitza eta kulturartekotasuna bultzatzea.
 - Jasangarritasuna sustatzea.
 - Genero-ikuspegia aintzat hartzea.
 - Belaunadi-artekon elkarbizitza sustatzea.
- Partaidetza prozesutik ateratako proposamenak garatzeko 1.200.000€-ko aurrekontua dago.

Guzti honekin, gogoeta-saioko partaideak 5 taldetan banatu dira.


Talde bakoitzak bere proposamena arbel-digitalean jaso du.







3. TALDEA



ZAHAR-ETXEA

Kultur jarduerak jasoko dituen herri ostatua

Herri-ostatua, taberna...

Belaunaldi desberdinetako herritarrek partekatzeko espazio autogestionatu bat

Gazteentzako txoko bat

HAURRESKOLAKO 1.SOLAIRUA

- Herriko eragileentzako espazioa, kultur eta bestelako jarduerak antolatzeko espazioarekin bateragarria izan daitekeena, manpara edo korredera sistemen bitartez.

Erabilera

Herriko elkartentzako eta la

Irakurketa-talde eta ipuin-irakurketarako espazio bat

Kirol disziplina zehatzetarako areto bat

Co-working gunea

Kultur areto

UDALETXEA

Bigarren aukera

Udal bilerak egiteko gela bat

l-langileentzako to bat

irritarrentzako aron-gela

Hileta zibilak egiteko espazioa



5. TALDEA

Laburbilduz,

TALDEA	UDALETXEA	HAURRESKOLAKO 1.SOLAIRUA	ZAHAR-ETXEA
1	2. eta 3. aukerek udaletxeari eta udal-zerbitzuen inguruko beharrak asebetetzen dituzte	Ez die hau lantzeko denborarik eman. Baina beste biek aurrekontua gastatuta legokeela aipatu dute	Herri-ostatua, kultur ekitaldietarako espazio batekin batera
2	Ahal izanez gero, 3. aukera. Ekonomikoki bideragarria ez balitz 2. aukera	Erabilera anitzeko espazio bat eta bi gela txikiago: 0-3 adin tarteko haurrentzat eta gazteentzako txoko bat	Herri-ostatua, kultur ekitaldietarako areto batekin
3	3. aukera eta espazio irekian kultur ekitaldiak egin daitezke, liburutegia jarri daiteke...	Areto handi bat eta gela txiki batzuk	Herri-ostatua, kultur aretoa... kafe antzoki moduko bat
4	2. eta 3. aukerekin eztabaida Hileta zibilerako pleno aretoa erabiltzea proposatzen da	Erabilera anitzeko espazio zabal bat eta erabilera zehatzetarako gelak txikiak	Herri-ostatua Honen kudeaketa nork egingo luke? Eta nola?
5	2. aukera Udaletxea udal-zerbitzuetatik haratago ekintzetara zabaltzeak kudeaketan zailtasunak dituela uste dute	Herri-eragileentzako espazio zabal bat, zatitu eta espazio txikiagoetan antola litekeena	Herri-ostatua, kultur ekitaldietarako areto batekin Ondoren honen kudeaketa nola egin erabaki beharko litzateke

Aurkezpenak egin ondoren ekarpenetarako tartea ireki dugu eta ondorengoak aipatu dira:

- Guk, hasieratik, udaletxerako 1. eta 4. aukerak albo batera utzi ditugu eta 2. eta 3. artean izan dugu eztabaida. Hala ere, aurrekontua kontuan hartuta eta herri-ostatuari lehentasuna eman nahi badiogu soilik 2. aukera da bideragarria.
- Udaletxean 3. solairu bat egitea zergatik proposatzen da? Udal-zerbitzuak hainbeste handituko direnaren aurreikuspena dago? Nire iritziz, 3. solairu bat egiten bada udal-zerbitzuetarako behar du izan edo bestela ez du merezi.
- Udaletxean 3. solairua herritarren erabilerarako izendatzeak daukan oztopo bat bertan langilerik ez dagoenean sartu-irtenak nola kontrolatuko diren da eta horretaz arduratzeko norbait jarri behar bada, horrek ere aurrekontuan inpaktua daukala kontutan hartu behar da.



4. Itxiera

Lan-saiori itxiera emateko hurrengo urrats eta hitzorduen berri eman da:

- Hurrengo astean Jarraipen Batzordea bilduko da gaurko gogoeta-saioan jasotakoarekin proposamen bateratu bat egin eta erabakiak hartzeko.
- AZAROAK 30, ASTELEHENA, ITZULERA-SAIOA. 17:00etatik 19:00tara. Izen-ematea beharrezkoa da.